# Bilboko Erraldoiak eta Buruhandiak

# Gigantes y Cabezudos de Bilbao



## Erakusketa · Exposición

**2013 Uztaila - Abuztua** · ***Julio -Agosto 2013***

EUSKAL MUSEOA • BILBAO • MUSEO VASCO
Miguel de Unamuno Plaza, 4 - 48006 BILBAO

Bilbao

Bizkaiko Gaiteroak

Balioen trena
renfe

# Bilboko Erraldoiak eta Buruhandiak

# Gigantes y Cabezudos de Bilbao

EUSKAL MUSEOA
BILBAO
MUSEO VASCO

Bilbao 2013

Argitaraldi digitala
*Edición digital*

Burutzapena, taiuketa eta maketagintza:
*Realización, diseño y maquetación:*
COMUNICACIÓN GRAFICA

Textuak / *Textos:*
© Autoreak / *Los Autores*

Itzulpenak / *Traducciones*:
Labayru Ikastegia

Argazkiak / *Fotografías*:
Bilboko Euskal Museoa / *Museo Vasco de Bilbao*
Bilboko Udala - Jaiteako Saila / *Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas*
Altadi Fundazioa / *Fundación Altadi*
Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa / *Museo de la Minería de Pais Vasco*. Gallarta
Athletic Club. Bilbao

Irudien digitalizazioa:/*Digitalización de imágenes:*
Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco

© EUSKAL MUSEOA BILBAO MUSEO VASCO

© Bilboko Euskal Museoa da eskubide guztien jabe. Beraz, horren aldezaurreko eta idatzizko baimenik gabe ezin da argitalpen honen osoko zein zatikako aldakirik atera, ez mekanikazko, fotokimikazko, elektronikazko, imanbidezko, eletra-optikazko, argazki-aldakizko ez beste inolako eratako irudigintza-modutan eraso edo zabaldu.

© Todos los derechos reservados. Esta publicación no puede ser reproducida, ni en todo ni en parte, ni registrada en, o transmitida por, un sistema de reproducción de información, en ninguna forma ni por ningún medio, sea mecánico, fotoquímico, electrónico, magnético, electroóptico, por fotocopia, o cualquier otro, sin el permiso previo por escrito del Museo Vasco de Bilbao.

# Aurkibidea
# Indice


Bilboko Erraldoiak eta Buruhandiak / *Gigantes y Cabezudos de Bilbao*

Don Terencio, 1980 / *Don Terencio, 1980*

Erraldoien 1988ko Belaunaldia / *Generación de Gigantes de 1988*

- Don Terencio eta Doña Tomasa / *Don Terencio y Doña Tomasa*
- Baserritarrak / *El Aldeano y La Aldeana*
- Ingelesa eta Bilbotar Neskatila / *El Inglés y la Bilbainita*
- Olagizona edo Meatzaritza / *El Ferrón o Minero* - Zigarrogilea / *La Cigarrera*
- Marinela / *El Marinero* - Zamaketaria / *La Carguera*
- Isabel II eta Zumalakarregi / *Isabel II y Zumalakarregui*

Pitxitxi eta Lina, 1998 / *Pichichi y Lina, 1998*

# Bilboko Erraldoiak eta Buruhandiak

# Gigantes Y Cabezudos de Bilbao



XIV. mendearen hasieran, Corpus Christi eguneko festa eta prozesioa garrantzi handiko hiriguneetara zabaldu zenean –hala nola, Bilbora–, hainbat antzezpen eta irudi gehitu zitzaizkien haiei; esate baterako, erraldoiak, buruhandiak, nanoak, dantzariak eta bestelako pertsonaia nabarrak. XVII. mendearen erdialdean, lau erraldoik parte hartzen zuten prozesioan. Haiekin batera ateratzen ziren Rabiak, mozorro eta maskuriekin, Nanoak edo Erraldoitxoak, txintxinekin, eta, batzuetan, Tarasca eta kartoizko Zaldia. XVIII. mendeaz geroztik, Corpus eguneko jaietan ez ezik, Hiribilduko beste jai profano nagusietan ere parte hartzen hasi ziren.

Denborarekin, gero eta gehiago batu zaizkie hasierako pertsonaia haiei, binaka beti; hala, gaur egun hamalau pertsonaiako taldea osatzen dute. Jatorrian, munduko hainbat lekutako errege-erreginak irudikatzen zituzten, nonbait; XIX. mende amaierako argazkietan, honako hauek ageri dira: Don Terencio eta Doña Tomasa, Turkiarrak, Mairuak, eta bi pertsonaia berri, Baserritarrak. Aurrerago, atzerriko errege-erreginak desagertu zirelarik, beste pertsonaia batzuk gehitu zitzaizkien, boladan ziren interesen edo gizarte gatazken arabera.

Erraldoiak zurrunak dira, baina etengabe jarduten dute dantzan; txistuaren eta danbolinaren doinuari jarraituz dantzatzen zuten antzina, eta Bizkaiko Gaiteroen gaiten edo dultzainen erritmoan, gaur egun, Bizkaiko Dantzarien Biltzarreko dantzarien besagainean, Erraldoien Konpartsaren baitan. Buruhandiekin eta Gargantuarekin batera, Bilboko jaietako ezinbesteko protagonistak dira.

Al extenderse la fiesta del Corpus y su procesión a principios del siglo XIV en poblaciones importantes como Bilbao, se incorporan a ésta una serie de representaciones y figuras entre las que se encontraban gigantes, cabezudos, enanos, danzantes y otros variopintos personajes. A mediados del siglo XVII eran cuatro los gigantes que participaban en la procesión. Junto a ellos salían Rabís, provistos de caretas y vejigas, Enanas o Gigantillas con sonajas y, a veces, Tarasca y Caballo de cartón. A partir del siglo XVIII, se incorporaran, además, al resto de las principales fiestas profanas de la Villa.

Con el tiempo su número fue aumentando, siempre en pareja, hasta los catorce actuales. En su origen parece que representaban a Reyes de las distintas partes del mundo, figurando en fotografías de finales del siglo XIX Don Terencio y Doña Tomasa, El Turco y la Turca y el Moro y la Mora, junto a dos nuevos, el Aldeano y la Aldeana. Posteriormente, habiendo desaparecido los reyes foráneos, se han ido agregando otros, producto de los intereses o conflictos sociales en boga.

Los Gigantes hieráticos pero al tiempo siempre danzantes a los sones del txistu y tamboril en épocas antiguas, hoy bailan acompañados de gaitas o dulzainas de Bizkaiko Gaiteroak y a hombros de los dantzaris de Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, aglutinados en la Comparsa de Gigantes, constituyéndose, junto con los cabezudos y el Gargantua, en protagonistas imprescindibles de las fiestas de Bilbao.

# Don Terencio

Egilea: Cómicos de La Legua- Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Bilboko erraldoietan antzinakoena da: XVII. mendearen amaieran sortu zen, Hiribilduko agintari politiko eta ekonomikoen ordezkari gisa. Pertsonaia honen janzkera aldatuz joan da denborak aurrera egin ahala.

1980ko belaunaldiko Don Terencio XVIII. mendeko zalduntxo ilustratuen moda frantsesaren tankeran jantzita dago.



© Bilboko Udala – Festa Saila

# Don Terencio

Autor: Cómicos de La Legua- Kilikilariak: Pedro Goiriena, 1980.

Es el personaje más antiguo de los Gigantes de Bilbao, surgido a finales del siglo XVII como representante del poder político y económico de la Villa. Su ropaje ha ido variando con los tiempos.

El Don Terencio de la generación de 1980 esta vestido a la moda francesa de los caballeritos ilustrados del siglo XVIII.



© Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco. Nº inventario 90/2215.

# Don Terencio eta Doña Tomasa

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

XVII. mendearen amaieran sorturiko bikotea, Bilboko gizarte burgesaren erakusgarria; harrezkero, Hiribilduko erraldoi belaunaldi guztietan egon dira presente. Bi pertsonaia hauen irudia aldatuz joan da, garaian-garaian bilbotar elitetzat hartu izan denaren ezaugarriekin bat etorrita, baina, aldaketak aldaketa, beti jantzi izan dira dotore, modari jarraituz.



© Bilboko Udala - Jaietako Saila

# Don Terencio y Doña Tomasa

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

Pareja de personajes surgidos a finales del siglo XVII como representantes de la sociedad burguesa de Bilbao, participando, desde entonces, en todas las generaciones de Gigantes de la Villa. Su imagen ha ido variando a tenor de lo que cada época ha entendido como élite bilbaina, pero siempre vestidos con gran elegancia siguiendo los dictados de la moda.



© Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco. Nº inventario 90/3042.

# Baserritarrak

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Baserritarrak erraldoien 1896ko belaunaldian agertu ziren lehen aldiz, Arratia bailarako tankeran jantzita. Harrezkeroko belaunaldietan, aldatuz joan da haien janzkera, betiere, jantzi herrikoien bilakaerarekin bat etorrita.

Bizkaiko landa- eremuaren ordezkariak dira; izan ere, XIX. mendearen amaieran, presentzia nabarmena zuen landak Hiribilduko gizarte bizitzan eta jaietan.



© Bilboko Udala – Jaietako Saila

# El Aldeano y La Aldeana

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

La pareja de Aldeanos aparece, por primera vez, en la generación de los Gigantes de 1896, vestidos a la usanza del Valle de Arratia. Las generaciones posteriores han visto evolucionar su indumentaria a la par que lo hacia el traje popular.

Representan al ámbito rural bizkaino, muy presente en la vida social y festiva de la Villa, a finales del siglo XIX.



© Ricardo Longa. Euskal Museoa - Bilbao – Museo Vasco.

# Ingelesa eta bilbotar neskatila

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Bikote hau 1962an iritsi zen Bilboko erraldoien artera, bilbotar herri kantutegitik ("Un Inglés vino a Bilbao" kantutik, zehazki).

*Etorri zen ingeles bat Bilbora, ibaia eta itsasoa ikustera*
*eta ikusirik bilbotar neskatilak, ez zuen joan nahi izan ostera.*
*Hala esan zuen:*
*nahiago bilbotar neskatila,*
*haren aurpegi polita*
*eta haren bizia eta gatza,*
*ezen ez amerikarra,*
*eta haren dirutza*
*eta haren dirutza*



© Bilboko Udala - Jaietako Saila
© Ayuntamiento de Bilbao - Área de Fiestas

# El Inglés y La Bilbainita

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

Esta pareja de personajes se incorpora a los Gigantes de Bilbao en 1962, extraídos del cancionero popular bilbaíno: "Un Inglés vino a Bilbao".

*Un inglés vino a Bilbao por ver la ría y el mar*
*pero al ver las bilbanitas, ya no se quiso marchar.*
*y dijo*
*Vale más una bilbainita*
*con su cara bonita*
*con su gracia y su sal (bis)*
*que todas las americanas*
*con su inmenso caudal (bis)*
*con su inmenso caudal (bis).*

# Olagizona edo meatzaria

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Olagizona eta haren bikotekidea, Zigarrogilea, erraldoien 1980ko belaunaldian agertu ziren, lehen aldiz, XX. mendearen hasieran beren ahaleginaz Bilbori bikaintasuna ematen lagundu zuten langile klaseen ordezkari gisa.

Olagizona edo meatzaria meatzaritzaren eta siderurgiaren ikurra da; hau da, XVI. mendeaz gerotik Bizkaira aberastasuna eta Bilbora merkataritza oparotasuna ekarri zituzten jardueren ikurra. Pertsonaia hau olagizonen ohiko arropaz dago jantzita.



© Bilboko Udala – Jaietako Saila

# El Ferrón o Minero

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

El Ferrón  y su pareja La Cigarrera fueron incluidos por primera vez en la generación de Gigantes de 1980 como representantes de las clases trabajadoras, cuyo esfuerzo contribuyó al engrandecimiento del Bilbao de principios del siglo XX.

El Ferrón o Minero, es el símbolo de la minería y siderurgia que, desde el siglo XVI, supuso la riqueza de Bizkaia y el esplendor comercial bilbaíno. Esta vestido como un ferrón.



© Museo de la Minería del País Vasco. Gallarta.

# Zigarrogilea

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Zigarrogilea eta haren bikotekidea, Olagizona, erraldoien 1980ko belaunaldian agertu ziren, lehen aldiz, XX. mendearen hasieran beren ahaleginaz Bilboren bikaintasuna eraikitzen lagundu zuten langile klaseen ordezkari gisa.

Zigarrogilea Begoñako Santutxun zegoen Compañía Arrendataria de Tabacos (1898-1936) lantegiko langilea da. Lantegi hartan egin ziren Farias puruak lantzeko lehenengo saiakera erdi-mekanizatuak, haren asmatzaile Heraclio Farias mexikarrari patentea erosita.



© Bilboko Udala – Jaietako Saila

# La Cigarrera

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

La Cigarrera y su pareja El Ferrón fueron incluidos por primera vez en la generación de Gigantes de 1980 como representantes de las clases trabajadoras, cuyo esfuerzo contribuyó al engrandecimiento del Bilbao de principios del siglo XX.

La Cigarrera representa a la mujer trabajadora de la Compañía Arrendataria de Tabacos (1898-1936) de Santutxu, en Begoña.  En esta fábrica se hicieron las primeras pruebas semi- mecanizadas para la elaboración de puros Farias, patente comprada a su inventor, el mexicano Heraclio Farias.



© Fundación Altadi.

# Marinela

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Marinela eta Zamaketaria erraldoien 1980ko belaunaldian agertu ziren, lehen aldiz, XX. mendearen hasieran beren ahaleginaz Bilboren bikaintasuna eraikitzen lagundu zuten langile klaseen ordezkari gisa. Marinela, arrantzale ohiko arropaz dago jantzita.

Bilboko portua –gaur egun, Abran– barne portua zen, jatorrian, eta San Antongo zubiraino iristen zen. Portuaren inguruan, lanbide gogorrak sortu ziren, eta haien guztien erakusgarri dira marinela, itsasoz itsaso ibiltzen zena, eta zamaketaria, kaietan itsasontzietako zamalanak egiten zituena.



© Bilboko Udala – Jaietako Saila

# El Marino

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

El Marino y la Carguera fueron incluidos por primera vez en la generación de Gigantes de 1980 como representantes de las clases trabajadoras que con su esfuerzo contribuyeron al engrandecimiento del Bilbao de principios del siglo XX.

El puerto bilbaíno situado en la actualidad en el Abra fue, en sus orígenes, un puerto interior que llegaba hasta el puente de San Antón, originando duros oficios personificados en el marino que surcaba los mares y la carguera que, en los muelles, se ocupaba de cargar y descargar los barcos.



© Eulalia Abaitua. Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco

# Zamaketaria

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Zamaketaria eta Marinela erraldoien 1980ko belaunaldian agertu ziren, lehen aldiz, XX. mendearen hasieran beren ahaleginaz Bilboren bikaintasuna eraikitzen lagundu zuten langile klaseen ordezkari gisa.

Bilboko portua –gaur egun, Abran– barne portua zen, jatorrian, eta San Antongo zubiraino iristen zen. Portuaren inguruan, lanbide gogorrak sortu ziren, eta haien guztien erakusgarri dira marinela, itsasoz itsaso ibiltzen zena, eta zamaketaria, kaietan itsasontzietako zamalanak egiten zituena.



© Bilboko Udala – Jaietako Saila

# La Carguera

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

La Carguera y el Marino fueron incluidos por primera vez en la generación de Gigantes de 1980 como representantes de las clases trabajadoras que con su esfuerzo contribuyeron al engrandecimiento del Bilbao de principios del siglo XX.

El puerto bilbaíno situado en la actualidad en el Abra fue, en sus orígenes, un puerto interior que llegaba hasta el puente de San Antón, originando duros oficios personificados en el marino que surcaba los mares y la carguera que, en los muelles, se ocupaba de cargar y descargar los barcos.



© Eulalia Abaitua. Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco

# Isabel II eta Zumalakarregi

Egilea: José Ignacio Urbieta, 1988.

Tomas Zumalakarregi jeneral karlista (Ormaiztegi, 1788), 1835eko Bilboko setioan zauritua, eta Isabel II.a, 1833 eta 1868 bitartean Espainiako erregina izan zena, erraldoien 1980ko belaunaldian agertu ziren lehen aldiz, Bilboko bikoiztasun tradizionalista-liberalaren alegoria gisa.



© Bilboko Udala – Jaietako Saila

# Isabel II y Zumalacarregui

Autor: José Ignacio Urbieta, 1988.

El general carlista Tomás Zumalakarregi (Ormaiztegi 1788), herido en el asedio de Bilbao en 1835, e Isabel II, Reina de España entre 1833 y 1868, serán incorporados a la generación de Gigantes de 1980 como alegoría de la dualidad tradicionalista-liberal de Bilbao.





© Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco. Nº inventario 81/1975.

# Pichichi eta Lina

Rafael Moreno Aranzadi "Pichichi" (1892 - 1922) eta haren emazte Avelina Rodríguez Miguel "Lina" erraldoiak 1998an eraiki zituzten, Moskotarrak konpartsaren ekimenez; hain zuzen ere, Bilboko Athletic Cluben mendeurrenean, kluba imaginario kolektiboan txertatzeko xedez.

Pichichi belaunaldi oso baten idolo eta ikur izan zen, eta haren izena darama, hain zuzen ere, Espainiako Futbol Ligan gol gehien sartzen dituen jokalariari ematen dioten garaikurrak.



© Bilboko Udala – Jaietako Saila

# Pichichi y Lina

Rafael Moreno Aranzadi "Pichichi" (1892 - 1922) y su mujer Avelina Rodríguez Miguel "Lina" son los Gigantes que se construyeron en 1998 por iniciativa de la Comparsa Moskotarrak con el fin de incorporar el Athletic Club de Bilbao, en su Centenario, al imaginario colectivo.

Pichichi, quien fuera símbolo vivo de toda una generación, ha dado su nombre al trofeo que se entrega cada año al máximo goleador de la Liga Española de Futbol.



© Aurelio Arteta, "Idilio en los Campos de Sport", VEGAP, Bilbao 2012.
Propiedad: Athletic Club. Bilbao

**EUSKAL MUSEOA. BILBAO. MUSEO VASCO**
**Miguel Unamuno Plaza, 4 - 48005 Bilbao**
**Tel: +34 944 155 423 - Fax: +34 944 790 608**
**museoa@euskal-museoa.org**
**www.euskal-museoa.org**